

Aritz Abaroa
Bermeoko alkatetzarako hautagaia
Candidato a la alcaldía de Bermeo
Bermeo (2019-05-20)

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Arratsalde on, bermiotarrok eta eskualdeko lagunok! Zelako poza Bermioko Lamerie holan jentez beteta ikusitze! Ezek ezin lei para honek enbarkaziñuek dakon martxie. Eskerrik asko, benetan, danoi etortiarren! Egunek aurrera duez; kanpainiek aurrera segiten dau eta gero eta energi gehidxaugaz gauz azkaningoko txanpieri arpi emoteko. Dakizuien moduen denporie darugu herridxentzako eta herridxegaz bihar eitzeko etor garala esaten eta demostraten. Zenbat bidar esan doskuzuie Bermiok beti okin dxauen indxarra, proieksiñue eta erreferentetasune errekuerateko projektue eta liderazgue falta dizela eta hauri dala guk ofrezidu biduna?

Ba, hamen gauz, etxez-etxe, kalerik kale, auzoz auzo, alkarte, eragile, Bermiotar asko ta askogaz egonda gero, Bermio Abante imingo dauen projektuegaz esko artien. Errekadue entzun eta ein biharrekuek ulertu duz. Hasitze gauz biharrien, ez gauz inon begire eta bestiek zer eingo itxaroten! Bermiotarrok inizatibedun eta liderazgodun talde bat gudu. Projekto sendo bat dakon taldie, kapazidadie dakon taldie eta Bermiogaz konpromisue dakon taldie. Eta hori da Bermio Abante: taldie, projektue eta konpromisue!

Hau geure herridxe da eta geu erremanga bigara Bermio tokaten dan lekora eruteko. Kantza-kantzata darutaz zortzi urte mando beti betiko berbak entzuten. Batzuk gobernora sartun ziniko, dana zan problemie, destrozuek topa ei zauien. Urtiek aurrera ein dauie eta, ikusi eta entzun ahal izan dotenaitzik, ondino berorregaz kantineligaz segiten dauie. Ganera, orain, herridxen dakuzen defizientzi eta arazo guztidxentzako kanpoko kulpabliek topaten ahalegindxuten die; eta zelan ez, ahal bada, argi dau, PNVkuek!

Benetan, ezkiez akordaten 28 urte daruiela gobernuen? Eztauei bebituten inguruko herridxetara zelan dauzen eta zelan gauzen ikusteko? Hara, zortzi urte inon kulpek entzuten. Zortzi urte lamentazinuekaz. Baie, zortzi urtien Bermio garbidxau dau? EZ Zortzi urtien gure instalazino deportibuetan mantenimientorik eta hobekuntzarik ein da? EZ Zortzi urtien Bermion reaktibazino ekonomikorako projektue landu da? EZ Orain dala zortzi urte baino hobiau gauz? EZ!

Hau eztinogu guk; hau geugaz egon dizen agentiek esan dozkuie, hau sentsazinue herritarrok transmitudu dozkuzie. Horreitzik errepetiten du behin eta barriro. Apurto daigunzen txikotak itxi dozkuien Bermio ilun eta projekto bakuegaz. Beitu daigun aurrera; pentsa daigun zelako Bermio gudun eta horretarako zertzuk biduzen. Guk hiru konpromiso nagusi dakuz:

BAT: Personak; Bermiotarrak:

Bizi-kalidadien aldeko apustue eingu, Bermio bizitzeko eta projekto familiarra aurrera atarateko lekue ezatie gudulako. Horretako kalitatezko zerbitzuek bihar-biharrezkuek diez.

Kalietako zikinkeidxeri eta mantenimiento faltiri aurre einbitsagu. Lehenengo zeregine da norberan etxie ondo atendidute okitzie.

¡Bermeo no necesita pancartas! Lo que necesita Bermeo es gestión, trabajo y liderazgo, y eso es ¡ABANTE! ¡Eso es lo que ofrece el PNV!

BI: Herridxen reaktibazino ekonomikue:

Bermio Bizi bet gudu, alde zahar bizi eta atraktibo bategaz; komertzidxuek igiritze dakozen herridxe, ostalaritza potentie dakona, eta, zelan ez, aktibidade ekonomiko barridkek fomentakuz herriko gazte eta ez hain gaztiak, herridxen bihar eitzeko aukerak okin daidxien.

La reconversión del puerto de Bermeo, y Gaztelugatxe son los principales focos de reactivación económica de Bermeo! Son una oportunidad, y está en nuestra mano aprovecharla! No vamos a esperar a que nadie nos haga los deberes, este equipo tiene proyecto, ideas e iniciativa que proponer y sacar adelante, y vamos a tirar del carro!

HIRU: Geure nortasune eta estilo propidxue. BERMIOTARRAK GARA!

Responsabilidadiegaz eta zorrotasunegaz gestionateko agindxue hartun du. Zorokeidxe barik, herritxarran lehentasunek argi okindxe, eta beste instituzino batzukaz alkarlanien.

Nora gudun ailega jakitzeko, nor garan, eta zer garan ezindxu ahaztu inondik eta inora. Itsasoko herridxe gara, herri arrantzalgie, geure nortasune daku eta hori dxabon eta rebindike einbidu.

Turistek datozeniko, asko eta asko, Gaztelugatxan atxakidxegaz datoz, baie gero Bermio, geure nortasune, geure kulturie, geure tradiziñuek eta geure gastronomidxe gudaie ezetu. Hori guztidxe opfreziteko producto turistikuek landu biduz!

Atunen Munduko kapitale izan gure badu, igarri daidxiela datozen danak! Eztakizuie, benetan, ze harro nauen eindxun ibilbidiegaz. Zeuekaz egon naie bakotxien hainbat etxeko lan apunte duz, baie, batez be, bakizuie zer dan hartundune? Honeri herridxeri ilusiñue bueltan emoteko gogoue. Dendarik denda, auzoz auzo eta aterik ate ibili garizeniko rezibidu dun berotasune eta energidxe bueltan emoteko desiten gauz. Ez okin duderik, nire taldiek eta nik dana emongu Bermion alde, bermiotarran alde!

Unai, Andoni, Itxaso, Izaskun... Gu Bermion interesak defenditeko presentaten gara. Gure lemie Bermio Abante imitzie da eta horretan INSISTENZIALISTEK, ezango gara! Ondo baino baino hobeto ezetutenzuie gure proiektue. Ondo baino hobeto dakizuie zeintzuk dizen Bermiotarran demandak eta ondo baino hobeto dakizuie, baitxe be, Bilbo eta Bizkaidxegaz ondo konektata egon bigarala. Konexiño onak biduz! Sollubeko tunelak eitzie bidu! Bizkaibus eta Euskotrenen frekuentzizek hobetutie bidu! Baie hona ezkatuz aldarri eitzire eta eskuak kruzeta egotire. Ez.

Akordako zarie: aurrerau baten, portuen, Bermiogazko konpromisue eskatu notzuien. Gaur be bardine dinotsutie, bai... baie, era berien, mangak erremangata, alkarlana ofreziten gatoz. "Bateginik" da gure alderdixek herri danatan dakon goiburue, ba ein daigun bihar Bermio Abante imitzeko Bat Eginik!

Geuri tokaten jazku Bermion garapen sozial eta ekonomikuen aldeko apostue eitzie, ze batzun diskursuek, kartak esatitez diez: arpi bikuek. Bermion gauze bat esaten dauie, baie gero beste instituzino batzutan, erabakidxek hartun bidizen instituzinuetan, kontrakue bozkatuten dauie edota ez dauie "txirtik" be esaten Bermion interesan alde.

NOS MUEVE BIZKAIA BAT EGINIK

EUROPAN ERE 



Bueno... ikustenzuie zelan dauen herridxe! Ilusionata gauz. Abante hasi gara! Bermiok Abante gudau egon! Atentzinue danok: ezin gara errelaja, ez dau ezer eindxe. Danok gara beharrezkuek! Tripulaziñorik onenan patroie ezateko suertie dakot, hamen dauzen andra-gizonak neugaz etorko diez baporan, baie hamen zauzien dan-dan-danok dako zuie zeregine!

Gaurtik domekara, berton zauzien danok Abante planta biazar! Ez lasaitu! Ez dau ezer eindxe! Domeka iluntzerarte, konplejo barik, postazunegaz, ilusiñuegaz, insistenzizegaz, errelaja barik.

- Danok Abante Bermio tokaten jatson lekuen imini arte!
- Bizi Kalidadie okitzeko, ABANTE!
- Bermio garbi imitzeko, ABANTE!
- Herriko komertzizuri, eta ostalaridxeri bizitxuten lagunduteko, ABANTE!
- Bermiontzako ilusiñoz beteriko proiektue aktibeteko, ABANTE!
- Bermioko portue reaktibeteko, ABANTE!
- Bermiotartasune balidxuen imini eta bermiotarron alegrentzidxe errekuarateko, ABANTE!
- Danok Abante domekan urnek EAJ-PNVko botuekaz bete arte!
- Zeuon danon indarra eta biharra biduz!
- Bermiotarrok! Geure herridxen alde, ABANTE!